



**eolosaldeko
ataria**

MODA



**MODA
GEHIGARRIA**

01

EL
ATELIER /05

02

BàB /05

03

MINÜTE /06

04

PONPOX /06

09

INGE
ZUBELDIA /10

MODA — — TENDENTZIEN ERAKUSLEIHOA

14

AVALON /13

Garai bateko tendentziekin bat eginez norbera apaintzeko erabiltzen diren jantzi, osagarri, orrazkera edo dena delakoen bilduma da moda. Betidanik egon da moda; gizakia jantzen hasi zenetik sortu zen eta urtekin moldatzen joan da.

Ziklikoa dela ere esaten da eta orain modan dagoena, datorren urtean zaharkitua geratu daiteke, baina ziur urte batzuk barru, bueltatu egingo dela. Horregatik da garrantzitsua soinean eramaten den hori kalitatezkoa izatea, behin eta berriz jantzita ere, iraungo baitu.

Moda aipatuta Paris, Milan edo New York-eko tendentziak jarraitu behar direla dirudi, are gehiago, hara joan behar dela modako azken joerak jarraitzeko, baina Tolosaldeak ere baditu hamaika aukera. Eskualdean modari lotutako denda asko daude, ez bakarrik arropa saltokiak, baita ile apaindegiak, lurrin dendak

edota azken joerak jarraituz, tatuaje estudioak. Hori guztia biltzen du Tolosaldeak, eta horren guztiaren eskaintza bildu nahi izan du TOLOSALDEKO ATARIAK, gehigarri honetan.

Modarekin bat joateko, tendentziak jarraitzeko edota estilo propioa eraikitzeko aukera zabala baitugu bertan, eta horrek badu bestelako onurarik ere; gertukoak diren profesionalak ditugula eskura, aholkuak eskatzeko, azken tendentzien inguruan galdetzeko edota besterik gabe, konfiantzazko giroan eskaintzen duten horren inguruko informazioa eskatzeko.

Hori da komertzio txikiek eskaintzen dutena, gertutasuna, zentzurik zabalenean.

Dendariek bezeroak mimatzen dituztela diote, euren etxeetako ateak zabaltzen dituzte egunero, bezeroei irribarrerik zabalenarekin duten onena emateko.

05

**ANDERS
GALLERY** /07

06

ANDDARE /08

07

PEAGE /08

08

UBEL /09

10

MM /11

11

NAIKARI /11

12

SERENDI /12

13

**SERENDI-
PITY** /12

15

**KAORI
FAKTORIA** /13

16

**MARIGO-
RRINGO** /14

17

**NAIRA
ESTETIKA** /14

**“Dena sortuta
dago, dena
errepikatzen
da, ziklikoa
da.”** Silvia Baltasar/jostuna





Helbidea: Letxuga kalea, 9, Tolosa. **Telefonoa:** 699 87 18 33
Instagram: elatelierdeima **Webgunea:** www.elatelierdeima.com

EL
ATELIER

01

02

BàB

LEKUAK PERTSONALIZATUZ

Barneen diseinu eta zaharberitze lanak uztartzen ditu, besteak beste, Ima Martiartuk Tolosako Letxuga kaleko estudioan. 2015eko urrian eman zion hasiera proiektuari. Hain zaharrak ez diren piezak berritzen ditu, eta «gaur egungo girora ekartzen» saiatzen da, bere «ukitua» emanaz.

Bezeroaren etxe edota bulegorako «benetan behar duena» lortzen saiatzen da, beti ere, funtzionaltasuna abiapuntutzat hartuz. El Atelier estudioan prozesu osoa zaintzen dute eta hori dela eta, bezeroaren bizi ohiturak ezagutzea eta aldatu nahi den espazioa aldezturik ezagutzea ezinbestekoa dela dio Martiartuk. «Bakoitzaren behar eta nahiak espazio jakin batean irudikatu behar dira», esan du.

Lan atenporalak egitea gustatzen zaio eta jendeari ulertu arazi nahi dio espazio zuri, beltz edota gris batetik harago gauza bikainak egin daitezkeela.

Martiarturen erronka jendea erakartzea da eta horretarako formula bilatzen ari da. Lana ondo egiten jarraitu nahi du, hori baita, bere ustez, denda ezagutzera emateko modurik zuzenena: «Zaila da lanbide hau, baina ematen du nire estudioa, pixkanaka, lortzen ari dela».



Helbidea: Gernikako Arbola Lorategiak, 1, Tolosa. **Telefonoa:** 943 65 56 80
Facebook: BaBTolosa **Instagram:** bab_tolosa

EZAUGARRI BEREZIAK

1998tik modan murgilduta egon da Itziar Eizmendi eta orain dela 4 urte Tolosako Gernikako Arbola BàB irekitzea erabaki zuen. Bertan, osagarriak, oinetakoak eta arropa saltzen ditu, oinarritzkoak dira batzuk, eta diseinuzkoak beste asko, «denetarik aurki dezake bezeroak». Eizmendiren ustez kalitatea funtsezkoa da, denda bakoitzak bere bidea aurkitu behar duela uste du eta horretarako komertzio bakoitzak bere nortasuna izatea beharrezkoa da.

BàBk eskaintzen duen moda minimalista da eta tendentzia «soilak» jarraitzen ditu. Era berean, gaur egungo modari jarraituz, moda abangoardista aurki daiteke. Bertako estiloaz gain, eskandinaviar eta italiar estiloko jantzi eta bitxiak ere aurki daitezke dendan. Arroparen kalitateari dagokionez, moda jasangarriaren alde egin du apustu eta bertako arropa organikoa da.

Nahiz eta dendak urte gutxi izan, dagoeneko sari asko jaso ditu. Gipuzkoako Bazkundearen eskutik 2017an eskualdeko komertzio onenaren 10 bitxiak saria jaso zuen dendak, «besteak beste, bezeroekiko harreman onagatik eta eskaintzen duen kalitatezko zerbitzuagatik» izan zela dio Eizmendik.

MINÜTE



Helbidea: Nafarroa Etorbidea, 18, Tolosa. **Telefona:** 649 68 25 20
Facebook: Minute Tolosa **Instagram:** minute_tolosa

UGARI

Ane Zinkunegik 2018ko martxoan ireki zuen Minüte arropa denda. Osagarriak, oinetakoak, poltsak, bufandak, eta askoz gehiago saltzen du. Negua gerturatzan ari da eta oraingo, hemengo giro hotzarekin, bezeroen gogokoenak lumazko jakak eta beroki lo-diak direla esan du. Urtean zehar aldiz, soinekoek arrakasta izan dutela aipatu du. 15 egunetik behin arropa berria ekartzen du, garaiaren eta jendearen eskakizunen arabera.

Bai gazteak eta baita adinekoak ere sartzen dira dendara, aukera zabala baitu Minütek eta gainera, neurri askotako arropa eskaintzen du. Pieces izeneko marka bat dauka eta «prezio onean» saltzen duela dio, «oso polita da, gainera zorionez asko gus-tatzen ari da», gaineratu du Zinkunegik.

Internetez bidaltzen du arropa eta egunero-egunero Instagram eta Facebooken *lookak* eta ideiak publikatzen dituela dio dendariak. «Interneta ez da dena, baina oso lagungarria da». Bere iri-tziz, gaur egun, *online* mundua beste erakusleaho bat da. Denda-riaren ustez, arropa denden artean konpetentzia handia dago eta «jendeak herri txikietan erosi beharrean denda handietara jo-tzen du». Minüten, aldiz, bezeroak giro lasaian erosi dezakeela dio eta, are gehiago, «harreman on bat egiteko toki egokia» izan daitekeela uste du. Komertzio txikietan produktu on bat saltzeaz gain, askoz pertsonalizatuagoa izaten da salmenta, bere ustez.



Helbidea: Tolosako Nafarroa Etorbidea, 7. zenbakian, orain, eta San Frantzisko pasealekuan.
 Abenduak 10etik aurrera **Telefona:** 943 65 40 62 **Facebook:** Ponpox Oinetakoak

— LEKUZ — ALDATU ETA — BERRITU —

Tolosako Amarotz auzoan sortutako familia negozioa Nafarroa Etorbidera pasa zen orain dela 30 urte. Egun, bertako zapata den-da itxi eta abenduaren 10ean San Frantzisko pasealekuan irekiko duten denda berrian bide berri bati ekiteko prest daude.

Komertzio txikien etorkizuna ziurtatzeko eta erosleak erakar-tzeko, bezeroak ondo tratatzea eta prezio egokiak jartzea fun-tsezkoa dela dio Jaione Mendizabal langileak. Ez baita erraza In-ternetaren gorakadari eta saltoki handiei aurea hartzea. Ponpo-xen ordea apustu egiten jarraitzen dute, eta berritzaileak izaten saiatzen direla diote.

Mendizabalek dio neguan etxeko zapatilak saltzen direla gehien eta udaran, aldiz, sandaliak. Jendeak opariak egiteko ere erosten ditu bertako oinetakoak, Gabonetarako, adibidez. Izan ere, kontsumoaren inguruan beste kontzeptu bat dagoela adie-razi du saltzaileak, eta azken urteetan oporrei, gastronomiari eta orokorrean, aisialdiari lehentasuna ematen zaiola uste du, baina zapata pare onak janztea ezinbestekoa dela dio, eta Ponpoxek aukera zabala du.

ARTE — EMOZIONALAREN GALERIA

Tatuaje estudio bat baino askoz ere gehiago da Anders Gallery; sorkuntza bildu eta erakusteko txokoak urtea bete du, jada, Villabonako Errota kalean.

Madriilen lanean aritu eta gero, Ander Ortiz de Muruak duela urtebete inguru zabaldu zuen Anders Gallery estudioa, Villabonako Errota kalean. Hasiera-hasieratik betea izan dute agenda, eta Ander Ortiz de Muruak argi dauka arrazoietakoa bat: «Tatuajeena ez da moda bat; jendearen kultura dagoen zerbait da».

Tatuaje errealistak eta linealak dira bere berezitasuna, baina leihoa zabalik izan ohi du, bezeroen proposamenak onartzeko. Horrela, formakuntzaren bitartez trebatuz, hainbat estilo ezagutu ditu urteotan: «Japoniarra, erralista, ilustratiboa, lineala, geometrikoa, koloreduna, *poltras* polka estilo alemaniarra, *old school*, *new school*, *traditional*, maoria...».

Estilo bakoitzak teknika bat eskatzen du eta, horrenbestez, orratz bat. Ortiz de Muruak aitortzen du orratzaren eta lekua araberak mina alda daitekeela, baina, hala ere, argi dauka «mina ezin dela neurtu»; pertsonaren araberakoa dela. Gainera, azken hamar urteotan tatuajeen munduko teknologia asko garatu da, bere iritziz.

Bizipenen mapa

Azala berez da bizipenen mapa, eta tatuajeek istorio eta momentuak gehitzen dizkiote norbere bizitzaren errepaso horri. Horrela, Anders Galleryk tatuaje pertsonalizatuetan jartzen du erdigunea: «Tatuajeak norbere bizitzako zerbait nonbait idatzita edo marraztuta uztea dira eta, beraz, jendea bere historia kontatzera etortzen da gugana. Psikologo lanak ere egin behar izaten ditugu, bai».

Bide horretan, seme-alaben izenak, falta diren pertsonen izenak nahiz epealdi txar bat gainditu izana arrazoi ohikoenak izaten dira, tatuaje bat egiteko: «Askotan pentsatzen dut bezeroen istorioek ez nautela gehiago harrituko, baina bai, beti iristen da kontakizun harrigarrien bat».



Helbidea: Errota kalea, 3, Villabona.

Telefona: 635 75 83 87

Facebook: Anders Gallery

Instagram: anders_gallery

Artista baten unibertsoa

Sartu orduko konturatzen da bezeroa: Anders Gallery estudio berezi bat da. «Zergatik? Ni tatuatzailea naiz, baina beste diziplina batzuetan ere aritzen naiz, eta erakusketak antolatzen ditut. Betidanik argi izan dut nire estudioa arte multzo bat izango zela, eta ez, bakarrik, tatuajeak egiteko gune bat».

Horrela, artelanez betetako hormak Ander Ortiz de Muruaren unibertsoaren zati bat baino ez dira; 8 urterekin hasi zen margotzen, eta hainbat material eta estilotan aritu izan da. Bertan dauden obrak bilduma pribatuak dira, baina enkarguz ere sortu ohi ditu antzeko lanak: «Artista emozionaltzat dut neure burua, eta gorputzak eskatzen didana sortzen dut».

Datozen hilabeteotan errealismoaren itsasora murgil egingo du, bere lana espezializatuz eta beste zenbait estudiorekin elkarlanak sortuz: «Baina hemen jarraituko dugu, Anders Galleryn».

ANDDARE



Helbidea: Korreo Kalea, 34, Tolosa. **Telefonoa:** 943 24 54 98 **Facebook:** Anddare Denda **Instragam:** agueda.cunadocaballero

BEZEROA MIMATU

«Modak ez dauka adinik» dio Ageda Cuñadok; edadetuak eta gazteak arropa berdina erosten ikusi ditzakegula dio, eta hori ona dela uste du eta Anddarek aukera hori ematen duela. Anddare osagarri eta arropa dendak, materialari dagokionez, zuntz naturala eskaintzen du arropetan, eta tendentziak jarraitzen ditu, ondoren, denda eskaintzeko.

Donostia eta Bilbora joaten da arropa erostera, eta betiko bezeroek zein arropa mota daukan eta nondik datorren dakitela nabarmendu du Ageda Cuñadok, eta hori baloratzen dutela. Gabonei begira arropa eta osagarri gehiago eskaintzen ditu, opari asko egiten baitira.

Ageda Cuñadoren ustez, Interneta beharrezkoa da, baina, bere iritziz, sareko salmentek ez dute bezeroarekiko tratua ziurtatzen eta komertzio txikiak eta, zehazki, Anddarek, bai. «Tolosan bezeroak ezagutzen dituzu eta hori oso ona da», adierazi du dendariak. Era berean, modaren inguruan aholkuak emateak «bezeroarekin duzun harremana hobea» izatea laguntzen duela dio. Garrantzia handikoa da bezeroekiko tratua ona izatea eta berak oso argi du: «Maitasun pixka batekin tratatu behar dira».



Helbidea: Emeterio Arrese kalea, 5, Tolosa. **Telefonoa:** 943 69 80 49 **Facebook:** Peage

KALITATEA ESKURAGARRI

Bakero galtzek arrakasta handia dute denda honetan, oinarritzko jantzia dira, Adolfo Ibarreta, Vito Ortiz eta Ainhoa Matilla saltzaileen ustez. «Tendentzia dena ekartzen dugu eta iruditzen zaigu aitzindariak izan behar dugula», dio Ibarretak. Punta-puntako italiar markekin lan egiten dute eta nahiz eta oinarritzko jantziak saldu, arropa bereziari tartetxo bat egiten saiatzen dira.

Kalitate aldetik, Peageko galtzek «bukaera onak dituzte eta urte luzez irauten dute, armairutik atera eta berdin-berdin jarraitzen dute», dio langileak. «Bakero on batera ohitzen garenean ezin duzu atzera egin», gaineratu du. Peageko dendariak diote jendeari asko gustatzen zaizkion *jeans* horiek dendako beste jantziekin konbinatu daitezkeela, hau da, galtza berezi horien osagarri izan daitekeen goiko arropa ere badutela.

Edonorentzako arropa aurki daiteke bertan, «*lookari* dotorezia puntu bat ematen dion *sport* itxurako arropa» ere aurkituko du Peagen, bezeroak.

Adolfo Ibarretak 22 urterekin ireki zuen lehenengo denda Tolosan, eta moda sektoreak aldaketa izan duela esan du. *Low cost* dendak eta komertzio txikiak «bide desberdinetatik» doazela argitu du eta Peageren apustua berritzailea izatea dela esan du, denda asko «zaharkituak» gelditzen baitira.

FRANTSES — UKITUAREKIN, ERROMANTIKOA

«*Naif, chic* eta eguneratuta» ibili nahi duten modazaleek Ubel dendan aurki dezakete bilatzen ari diren hori, Emi Marques Jallereren eskutik. Arropaz gain, era guztietako osagarriak saltzen ditu.

Datorren otsailean hemezortzi urte beteko ditu Tolosako Laskorain kaleko 3. zenbakian dagoen Ubel dendak. Emi Marques Jallereren denda adinez nagusituko da, beraz. Diseinuko ikasketak egin eta denda bat irekitzea izan du betiko amets, modaren gurpilean sartuta dabil ordu ezkerro. Hiru lagun ar-tean daramate denda aurrera.

Atea zabaldu orduko nabari daiteke aire erromantikoa. Frantses ukituko markak ekartzen ditu gehienbat, eta guztiak konbinatzea gustatzen zaio: «Marka ezberdinak elkarrekin bizitzea gustatzen zait, eta fusionatuz *look* hoberenak lortzen saiatzen naiz». Moda aldatzen doan bezala, bere erritmora eguneratuta egotea garrantzitsua dela uste du. «Berritasunak ekartzea gustatzen zait, ez atzean geratzea». Marka batzuetan, ordea, oinarritzko jantzi batzuk mantentzearen aldekoa da, bere ustez, ondo funtzionatzen dutelako. Koloreekin jokatzeko ere gustatzen zaio, arropa eta osagarri berdinekin *look* ezberdinak osatzen ditu, bezeroak ere aukera izan dezan etxean daukanarekin konbinatzeko.

Garrantzi handia ematen dio Marquesek bezeroekiko harremana zaintzeari, pertsonalizatua behar du izan tratua: «Bezera gure dendatik pozik eta ilusioarekin ateratzea gustatzen zaigu». Bezera dendara sartzen den unetik «goxo eta eroso» senti dadin nahi izaten du, eskaintzeko daukana ikus dezala, eta laguntzarik behar badu laguntzea, aholkuak ematea eta denda daukanarekin jolastea gustatzen zaio.



Helbidea: Laskorain, 3 behealdea, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 29 25

Instagram: Ubeldenda

Esklusibotasunak laguntzen dio bere denda espazio desberdin bat izan dadin. «Nire denda dauden firmak ez dira errepikatzen beste Tolosako dendetan, eta hori puntu garrantzitsua da». Moda munduan «hoberena» hautatzen saiatzen da, eta aukera «berezi eta zaindua» eskaintzen du. Frantziako eta Europako Iparraldeko markak erabiltzen ditu gehienbat: Des Petits Hauts, Noa Noa, Becksondergaard, ICHI, Pieces, Leon & Harper eta American Vintage bezalakoak aurki daitezke.

Ubel dendara sartzen den edonork goitik behera jantzita ateratzeko aukera du. Arropaz aparte, lentzeria, galtzerdiak, oinetakoak, bufandak, txanoak, poltsak... eta gauza gehiago aurki daitezke. Horrek, modarekin jolasteko aukera ematen dio. «Zerbait berezi eta desberdina aurkitu nahi duenak, eta kalitatea bermatuta izan nahi duenak, nire dendako atea gurutzatzea besterik ez du egin behar». Modaren zale direnentzat eta «*naif, chic* eta eguneratuta» ibili nahi duenarentzat da Ubel denda.



Helbidea: Avenida Martin Jose Iraola, 10 baxua, Berazubi auzoa, Tolosa.

Telefonoa: 697 52 53 68

Emaila: ingezubeldia@gmail.com

Instagram: ingezubeldia

Facebook: Inge Zubeldia

Pinterest: Inge Zubeldia

NEURRIRA — ETA — GUSTU HANDIZ EGINDAKO — JANTZIAK

Inge Zubeldia diseinatzaileak abenduaren 14an irekiko du estudioa Tolosako Berazubi auzoan. 19:00etan izango da inaugurazioa. Edizio mugatuko bildumekin egiten du lan, eskusibotasuna eskainiz.

Gabonetarako atek zabaltzea aurreikusten du Inge Zubeldia alegiarrak. Izen berarekin irekiko du denda Tolosako Berazubi auzoan. Ez da soilik saltzeko gunea izango, Inge Zubeldia diseinatzailea da eta lokal horretan bertan duen tailerrean josiko ditu ondoren salduko dituen arropak.

Bilduma berria noiz bukatuko zain dago atek behar bezala irekitzeko, jada badu inaugurazio data: abenduak 14. Denbora darama tailerrean lanean, neurria egindako lanetan buru-belarri. Ireki aurretik, ordea, dendan saltzen jartzeko arropak prestatu nahi ditu: «Jende askok galdetu dit ea zergatik ez duan lehenago ireki, baina inaugurazio egunean hutsa irekitzeko, nahiago dut beranduago ireki».

Egunero erabiltzeko moduko arroparekin emango dio hasiera etapa berriari. «Egia da, adibidez, niretzako egunero erabiltzeko arropa, beste batentzat gehiegi dela, baina, gauza askorekin gertatzen da hori». Momentuz, arroparekin hasiko da. Badu buruan zapiak egiteko asmoa, eta ez du baztertzeko etorkizunean osagarri gehiagorekin lan egiten hastea.

Bere diseinatzeko estiloa nahiko «erromantikotzat» du. Oinarritzko jantziekin jokatzeko gustatzen zaio, baina, betiere bere ukitua emanaz. «Linea nahiko sinpleekin egiten dut lan eta detaile eguneratuago batzuk sartzen dizkiot, nire ukitua emango diotenak». Ukitua ematen dioten gauzetatik nabarmenenak lazoak eta loreak dira: «Nire diseinuaren parte dira, nahi gabe egiten ditut». Kolore pastelak joateko ohitura du, baina, tartean-tartean sartzen ditu kolore biziago eta estanpatuak. «Zuria eta kolore pastelak ditut gogokoen».

Edizio mugatuko bildumekin egiten du lan. Beraz, modelo batean neurri bakoitzeko arropa bakarra dago. Horrek, eskusibotasun gehiago ematen dio. Erabiltzen dituen oihalen gehiengoak Espainian fabrikatutakoak dira, hortaz, langile horiek lan baldintza duinetan aritu direla pentsatu nahi du Zubeldiak. «Kalitate aldetik ere, oihalak zaintzen saiatzen gara».

Dendan bertan josten du arropa guztia amaren laguntzaz, horretarako prestatu duen tailerrean. Neurria ere egiten du lan, eta jende guztiarengana iristeko aukera ematen dio horrek: «Jende asko dago arropa aurkitzeko arazoak dituen, bai argalegi dagoelako, bai gizona dagoelako, edo baita beste edozein arrazoiengatik. Neurria egiteak arazo horiek ezabatzen laguntzen du». Neurria egiteko garaian, bezeroaren eta bere artean artean erabakitzen dute zein motatako arropa egin: «Bezeroaren gustu, morfologia eta kromatismoaren arabera egiten ditut. Aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen diegu lehen momentutik». Horrez gain, ezkongaiantzat ere neurria egiten du lan.

Iaz hasi zen neurria lan egiten, Kutxa Kultur Modaren egonaldi-programarako hautatu zutenean. Tabakaleran berak egindako lanak erakusteko beka moduko bat jaso zuen, eta hortik hasi zen ezagun egiten Inge Zubeldia marka. Bere marka saltzeko denda propioa irekitzea betidaniko ametsa zen, eta nahiz eta hasiera batean hain gazte irekitzeko asmorik ez izan, lana bazuela ikusita, eta asko eta ondo pentsatuta, merkatuaren uholdera salto egitea erabaki du 25 urterekin.

Aukera askoren artean Tolosa aukeratu du denda irekitzeko, zehazki Berazubi auzoko lokalean hartu du lekua. «Tolosan neurria egiten dituzten oso gune gutxi zeudela konturatu nintzen, eta merkatua aztertu ostean, aukera ona izan zitekeela ikusi nuen. Begiak itxi, eta horixe aukeratu nuen».

Bartzelonako LCI unibertsitatean egin zituen moda eta diseinuko ikasketak. Tartean, Hanburgon pasa zuen urtebete Erasmus bekarekin. Duela bi urte amaitu zituen ikasketak, eta makina bat pasarelatan ikusi izan dira berak diseinatutako jantziak; besteak beste, 080 Barcelona, Miramar Jauregiko Moda Iraunkorreko desfilea, ANDE (finalista geratu zen Euskadiko lehiaketan), Tabakalerako Kutxa Kultur Moda, Tolosa Zuria Loretan, Bataplan eta Balenciaga Museoa.



Helbidea: San Frantzisko Pasealekua, 17, Tolosa. **Telefonoa:** 943 65 34 51

MM

10

11

NAIKARI

HARREMANA — ARDATZ

Galtzak, soinekoak, alkandorak, jertseak eta mota askotako txamarrak aurki daitezke MMn, bai lumazko jakak eta baita «betiko» berokiak ere. Urtean zehar mota askotako arropa saltzen dute, baina neguan, hotz egiten duenean, txamarren salmentak gora egin ohi duela adierazi du Maribi Saizarrek, bertako saltzaileak.

Espazio irekia dute MM dendan, sartu eta lasai-lasai ikusi daiteke bertan daukaten eskaintza zabala. Bezeroarekiko tratua dute gustuko; «gure asmoa lagundu eta aholkatzea da beti. Bezeroa eroso sentitzea nahi dugu eta behar duen denbora hartzerantz animatzen dugu, jantzi egokia aukeratu dezan». MM dendan gertutasuna dute ardatz. «Komertzio txikiek daukaten berezitasuna bezeroekiko tratu estua» dela dio dendariak, eta euren bereizgarri nagusia hori dela nabarmendu du; dendara joaten direnak mimatzen dituzte.

Dendak hamabost urte ditu, baina Edurne Garmendia eta Mari-bi Saizar 2017ko irailean hasi ziren. Denda gaur egun dagoen tokira lekuz aldatu behar izan zuten eta bien artean dendaren ku-deaketa hartzea erabaki zutenetik urtebete pasa da.



Helbidea: San Frantzisko pasealekua, 19, Tolosa. **Telefonoa:** 943 67 57 69
Facebook: Naikari Ilepaindegia

GAZTEENETIK — ZAHARRENERA

Solana kaleak eman zion ongi etorria Naikariri. Egun, 7 ile-apaintzaile ari dira lanean San Frantzisko pasealekuko lokalean, horien artean Garbiñe eta Kontxi Olarra ahizpak.

Adin guztietako jendea gerturatzen da bertara: «Ile apaindegi asko adin zehatz bati bideratuta daude, baina niri gehiago gustatzen zait adin guztietako jendea jasotzea». Garbiñe Olarra ile-apaintzaileak dio adinekoak astero joaten direla, eta 97 urteko emakume bat ere joaten zaiela nabarmendu du. Olarrak esan du denetik eskatzen dutela bezeroek, «bakoitzaren gustuak dira eta oso pertsonala da». Helduenak astean zehar ilea ongi mantentzeko joaten dira, eta gazteak berriz, edozein egunetan joaten dira, moztera eta kolorea ematera, bereziki. Azken tendentziak jarraitzen dituzte Naikarin, orain ilehoriak arrakasta duela diote, baina arrosa eta berdea dira bogan dauden koloreak, baita grisa ere.

Naikarin arreta berezia jartzen diote bezeroarekiko tratuari eta «jendea etxean bezala sentiaraztea» da euren helburua. Bezeroekiko harremana oso ona eta gertukoa dela adierazi du, «jendeak esaten du alaitasuna nabari dela ile-apaindegian».

12

SERENDI

13 SERENDI-
PITY

Serendi: Korreo Kalea 44, Tolosa. Telefonoa: 639 717 40

Instagram: serendipityspace Facebook: Serendipityspace



Serendipity: Gernikako Arbola, 1, Tolosa.

Telefonoa: 639 717 40

Instagram: serendipityspace

Facebook: Serendipityspace

«gaur egun, jendeak ulertu behar du ez dela ezer pasatzen erosten ez badute, agian, hurrengo batean etortzen direnean gustatuko zaie zerbait». Dendara sartzen diren pertsonekin sortzen den harreman hori maite du eta aholkuak eta informazioa ematen saiatzen da, erosi ala ez, dendatik gustura atera daitezzen.

Vecinoren iritziz, sektoreak herrian indar handia hartu du. Dendara inguruko jendea joaten da, «gauza bereziak eskaintzen dituztelako», Donostialdetik, eta baita Goierritik ere. «Pilak jarri behar ditugu eta produktu berriak eskaini», esan du dendariak. Bezeroak erakarri behar dira, eta horretarako, kalitatezko arropa saltzea funtsezkoa dela dio Vecinok. Prezio-kalitatearen balantza horretan arropa aurkitzea nahiko zaila dela uste du, eta horretan ari dira lanean.

Iaz, Alde Zaharrean bigarren denda ireki zuen, Serendi. Han, egunerokoan janzten den arropa eskaintzen du, bestean, berriz, «gauza bereziagoak». Bi estiloak uztartu daitezkeela uste du Vecinok eta bezeroei aukera hori eskaini nahi diela, «egingo dutenaren edo aldartearen arabera, janzkera aproposa aukeratu ahal izateko». Dendariak dio «interesgarria iruditzen zaiola bi dendetan gauza desberdinak eskaintzea». Dendez gain, Internet bidez Espainian bidalketak egiten ditu.

BI DENDA ETA BI ESTILO, BAT — EGINDA

Silvia Vecinok, Serendipity eta Serendiko jabeak, bizitzan aldaketa bat behar zuela sentitu zuen orain dela 3 urte. Komunikazio eta enpresa arloan espezializatu eta lan egin ondoren, Serendipity irekitzera animatu zen. «Nire lana ez zitzaidan gehiegi gustatzen, hau da, ez nuen bide hori segi nahi eta betidanik moda interesgarria iruditu zaidanez, aurrera egin nuen», dio dendariak.

Tolosako Gernikako Arbolan dagoen denda txikia da, baina Silvia Vecinok ziurtatu du denetik aurkitu dezakeela bezeroak. Dendara gerturatzen den jendea adin desberdinekoa dela aipatu du, «gezurra ematen du, baino denek aurkitzen dute gustuko zerbait». Izan ere, Serendipity hitzak dendako filosofia eta giroa ongi definitzen du: «Bilatzen ari ez zaren hori aurkitzea, ustekabea, sorpresa atsegin bat, alegia».

Dendara sartzea «esperientzia aberasgarria» dela esan du eta bezeroek momentu on bat pasatzeko aukera ere badutela gehitu du: «Azken finean guztiek parte hartzen dute, aholkuak ematen dituzte euren artean eta guk enpatia dugu haiekin». Komertzio txikiek bezeroarekiko harremana sendotzen duela uste dute, salmenta gertukoa delako. Hala ere, Serendipity denda txikia izan arren, jendea dendara sartzera, dagoena ikustera, modaren inguruan hausnartzera eta, orokorrean, erlazionatzera bultzatu du,



Helbidea: Berdura Plaza, 4, Tolosa.

Telefonoa: 943 67 51 02

Facebook: avalonmoda

Instagram: avalontolosa

AVALON

14 15

**KAORI
FAKTORIA**



Helbidea: Kale Nagusia, 26, Villabona.

Telefonoa: 943 539 652

Facebook: Kaori Faktoria

Instagram: kaori_faktoria

Webgunea: kaorifaktoria.com

Hasieran osagarri denda zena, urteak pasa ahala, denetik saltze-
ra pasa da. «Gure manikiak fularrez janzen genituen, *look* origi-
nalak sortuz», esan du Avalon dendako Patricia Casajusek. Egun,
arropa, oinetakoak, bitxiak eta osagarriak saltzen dituzte Monica
Moreno eta Patricia Casajusek.

Artisautza eta material nobleen alde egin dute apustu hasiera-
tik, hortaz, arropa «berezia» dela azpimarratu dute, «kaletik ikus-
ten ez dena», alegia. Arropa asko Danimarka eta Frantziatik
ekartzen dute eta bitxi asko Kataluniatik. Tolosaldeko eta Do-
nostiako poltsa diseinatzaileekin ere lan egin ohi dute.

Duela gutxi hasi dira oinetakoak saltzen. Oinetakoen ekoizlee-
kin batera euren estilo propioa bilatzen saiatzen dira; zapata
ekoizleek diseinu bat proposatzen diete eta Avalonek aldaketa
batzuk egitea eskatu dezake, dendako estilora gerturatzeke.

Bezeroekin konfiantza lortzea funtsezkoa dela adierazi dute
dendariek, «dendara sartu eta ateratzen lasai utzi eta erositakoa
etxean probatzeko aukera eman behar zaie».

Hala ere, Internet bidez egiten den salmenta izan da Avalonen-
tzat «etsai nagusia». «Herriak hilda nahi ditugu?», galdetu dute,
eta bidean goazela esan dute dendariek. Herria bizirik manten-
tzeko dendak beharrezkoak direla uste dute. Lehiakortasun
asko dagoela diote eta denetik eskaintzen duten denda asko
daudela, hortaz, «denda bakoitza bere bidea egiten saiatzen»
dela uste dute, eta Avalonek ere eskaintza berezian jarri du inda-
rra, hori lortzeko.

MODA — JASANGARRIA

Artisautzaren munduan murgildu dira Lurgi Zalakain eta Nahikari
Iturbe. Afrikara bidaiatu eta estanpatutako tela koloretsuak eza-
gutu zituen Zalakainek eta «erakargarriak» egin zitzaizkion. Es-
tanpatu horiekin arropa eta osagarriak euren erara apaintzen di-
tuztela dio Iturbek. Oraingoz Afrikako estanpatuak erabiltzen di-
tuzte, baina ez dute baztertzen munduko beste leku batzuetako
oihalak ere erabiltzea.

Proiektu berria da Kaori Faktoria. Irailean ireki zuten denda, Vi-
llabonan. Urteak pasa ahala, Zalakainek sentitzen zuen Kaorik
«indarra behar zuela» eta horregatik erabaki zuten denda fisikoa
irekitzea.

Nahikari Iturbek dio «naturan eta gizartean eragina ahalik eta
baxuena izaten saiatzen» direla, izan ere, Kaoriko arropak ingu-
rumena zaintzen dutela bermatzen duen zigilua daramate. Be-
raien helburua da joskintza-artisautza ezagutaraztea eta euren
diseinuen prozesua Faktorian hasi eta bukatzen dela ziurtatzen
dute.

Izan ere, Faktoriako langileen iritziz, gaur egun kontsumismo-
aren ondorioz, erosi, erabili eta bota egiten dugu, «nork, noren-
tzat eta nola egiten den begiratu gabe». Jendeari erakutsi nahi
diote beste era batera lan egin daitekeela, eta horrela «bizitza
janzteko beste modu batzuk» ere badaudela. Horregatik, saiatu
dira Kaorin hausnarketa egiten eta beste era bateko ekoizpena
egiten, «kultura, jatorri, gorputz, hizkuntza eta genero aniztasu-
na» ardatz dutelarik.

BEREZI — BEREZIA

16

MARIGORRINGO

17 NAIIRA
ESTETIKA

Web orrialdea: marigorringoak.com

Instagram: marigorringoak_kids_shop

Facebook: Marigorringoak

HAURREN — ARROPA, — 'ONLINE'

Sara Gomezek etxetik egin zezakeen lan bat bilatu nahi zuen. Umeak izan zituen haurren arroparen munduan sartu eta Marigorringoak izeneko *online* denda ireki zuen. «Umeak eduki nituen gehiago erreparatzen nuen haurrentzako jantzietan, kolore eta estanpatuengatik bereziki», dio Gomezek.

Eskaintzen duen arropa «kalitate onekoa» dela dio, kotoi organikoarekin egindakoak dira asko, gerora begira, «irauten dutenak». Moda jasagarriaren alde ere egin du apustu, «planeta zaindu eta arropa berrerabiltzeko» asmoz. Izan ere, pestizidak eta produktu kimikoak ez ditu erabiltzen. Haurren azala zaintzeko «kalitate oneko ehunak» erabiltzen ditu. Osagarriak ere egiten ditu, hala nola, txapelak, umeentzako zakuak, txupeteak zintzilikatzekoak...

Internet bidez saltzen du, sare sozialetatik eta webgunetik, hain zuzen. Instagram eta Facebook ere baditu. Bezeroek argitalpenetan, hau da, argazkietan, klik egiteko aukera dute, ondoren, web orrialdean erosteko.



Helbidea: San Frantzisko pasealekua, 35, Tolosa.

Telefonoa: 676 28 57 61

Facebook: Naiira estetika zentroa

— TRATAMENDUEN —
— GARRANTZIA —

Ekainean ireki zuten Naiira. Zentro honek estetikako zerbitzu gehienak eskaintzen ditu. Eskakizun handiko zerbitzu bat aurpegi-ko tratamenduak direla dio Naiara Iraolak. Udan, hala ere, maki-laje eta betileen luzatze gehiago egiten dituztela azaldu du, baita manikura tratamenduak ere.

Gazteekin eta nagusiagoekin egiten dutela lan esan du, eskaintza zabala baitu Naiirak. Gaztetxoek «azaleko lanak» eskatu dizkiete orain arte eta nagusiek azaleko zaintzarekin arduratzen dira gehiago, «adin batetik aurrera azala gehiago indartu nahi» baita, orokorrean. Azala sano mantentzea oso garrantzitsua da Naiirako estetizistaren hitzetan eta zentroak hamaika aukera eskaintzen ditu hori lortzeko.

Konpetentzia badagoela esan du, baina zerbitzu on bat emanez gero jendeak errepikatu egiten duela dio, bezeroekiko tratua baita komertzio txikiaren ezaugarri nagusia eta denda bakoitzak bere bidea egin behar duela gaineratu du. «Nik garrantzia handia ematen diot pertsona bati bere denbora emateari, mimatzeari...».

Naiira Tolosako San Frantzisko pasealekuan dago eta lekua apropos aukeratu zutela ere esan du Iraolak. Izan ere, Tolosan aparkatzea arazo bilakatzen dela dio eta bezeroek San Frantzisko pasealekua eskurago dutela uste du.

“Guztiz kontra nago ‘Para lucir hay que sufrir’ esaerarekin; inork ez du sufritu behar dirdira egiteko. Moda estilo Inge Zubeldia asko daude”

/ diseinatzailea

Azala: Ibai Luque. **Testuak:** Iker Larrañaga, Itzea Urkizu Arsuaga eta Irati Saizar Artola. **Argazkiak:** Iker Larrañaga, Itzea Urkizu Arsuaga, Irati Saizar Artola, Anders Gallery eta Marigorringo



OSTEGUNA, 2018KO AZAROAK 29

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea:

Naiara Roldan de Aranguiz.

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetaidea: 687 410 022.

anoetaidea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



**Tolosa
&Co**

Tolosan, milaka aukera zure esku

ZAINDU DEZAGUN BERTAKOA



WWW.TOLOSANDCO.ORG

